

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### FUNTZIO PUBLIKOA

#### **Francisco Javier Galve Borja jauna Luis Aranburu Musika Eskolaren zuzendari izendatzea**

2016ko ekainaren 3an onetsi zuen Gasteizko Udaleko Gobernu Batzarrak Luis Aranburu Musika Eskolan indarrean dagoen lanpostuen zerrenda/katalogoren aldaketa partziala, eta bertan jasotzen zen eskolako zuzendaritza kontseiluak adostutako proposamena, zein zuzendari lanpostuaren definizioa aldatu eta irakasleen lanaldia areagotzeko baita.

Zuzendari lanpostua zuzendaritzakotzat joko da eta, horrenbestez, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio izendatzea.

2010eko ekainaren 25ean Udalbatzak behin betiko onespena eman zion Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoari. Dokumentu horretan, besteak beste, gobernuaren eta administrazioaren oinarriko mailak arautu eta horien funtzionamendua, antolaketa eta erregimen juridikoa xedatzen dira.

Araudi horretan berriaz arautzen dira zuzendaritza organo motak, horien zereginak zein izendapen erregimena, eta horrekin lotuta, 44. artikulua honela dio:

Tokiko Gobernu Batzarrak izendatu nahiz kargutik kenduko ditu koordinatzaile nagusiak eta zuzendari nagusiak nahiz antzeko organoak.

Eta 2. paragrafoan honela jarraitzen du.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 130.3. artikuluan xedatutakoaren arabera izendatu beharko dira. [...].

Aipatutako artikulua, berriz, hau xedatzen du: "Koordinatzaile nagusia eta zuzendari nagusia, gaitasun profesionala eta esperientzia aintzat hartuta, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako karrerako funtzionarioen artean izendatuko dira, edo A1 azpitaldean sailkatutako multzo edo eskaletako gaikuntza nazionalako funtzionarioen artean, salbuespen gisa; eta udal-erregelamendu organikoak ahalbidetzen badu, titularrak ez du zertan funtzionarioa izan beharko, zuzendaritza-organoren horietako eginkizunen ezaugarri bereziak direla- eta". Hain zuzen ere, Gasteizko Udalean aurreikusita dago aukera hori. Gasteizko Udaleko Administrazioaren eta Gobernuaren Araudi Orokorra jasoa du aukera hori, beraz, beharrezkoa denean, zuzendaritza-organoren lanpostuak funtzionario ez direnek edo lanpostu horiek betetzeko eskatzen den titulazioa ez dutenek bete ahalko dituzte.

Horrenbestez, Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 44. artikulua –Tokiko Gobernu Batzarraren esku uzten baitu zuzendari nagusiak izendatu eta lanpostutik kentzeko eskumena–, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124.4.b) artikulua –Tokiko Gobernua Eraberritzeko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua– xedatutakoarekin bat etorritik, alkateari dagokio udal administrazioaren zuzendaritza, eta ondorioz, Gasteizko Udalaren alkateak honako hau proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzarrari.

Erabaki proposamena

Francisco Javier Galve Borja jauna Gasteizko Luis Aranburu Musika Eskolako zuzendari izendatzea,, 2016ko urriaren 21eko ondorioekin, aipatutako zereginetan emango duen lehena izanik, harik eta lanpostu horretatik kendu edo legeak aginduta handik kendu behar izan arte.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko azaroaren 15ean

*Alkatea*

*GORKA URTARAN AGIRRE*